



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Ermuko ostalaritza eta aisialdi lokaletako eraso matxistei EZ

Ostalaritzako edo aisialdiko negozio bat zuzentzen duzu edo han lan egiten duzu, egunez edo gauez?

Hala bada, ondo dakizu zein garrantzitsua den **langileen** osasuna eta segurtasuna zaintzea (barran, terrazan eta mahaietan, DJak, edalontziak biltzen dituenak, etab.), **bezeroei** zerbitzu ona emateko behar bezala gaituta eta babestuta egon daitezen. Haiek, era berean, errespetu, zaintza eta arreta guztia merezi dute eta.

Zure lokalean eraso matxistak edo indarkeriazko portaerak gertatu dira? Jakin duzu nola jokatu?

Prebentzioan eta lehen arretan ere parte garrantzitsua zarela uste baduzu, kanpaina honetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Paperontzitxo batzuk emango dizkizugu zure establezimenduko mostradorean jartzeko, “**Eraso matxistei Ez**” mezuarekin. Eskatu diezagukezun puntu lila duten **pegatinak/biniloak** baditugu.

Horretaz gain, zure establezimenduan gerta daitezkeen **eraso matxisten aurrean funtsezko jarraibide batzuk** ematen dizkizugu, bai bezeroekiko bai langileekiko.

Eta, behar izanez gero, **aholkularitza tekniko**a edo **informazio** zehatzagoa emateko aukera, Emakumearen Topalekuan, Tel. 943171030

Zure zeregina funtsezkoa da eraso horiek eteteko

Zure inplikazioa ezinbestekoa da desagertzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko

FUNTSEZKO JARRAIBIDEAK

Indarkeria matxista hainbat modutan ager daiteke aisialdiko testuinguruetan, eta ez da beti erraza izaten portaera horien aurrean jardutea. Hauek dira modu egokian esku hartzen lagun diezazuketen **jarraibide** batzuk:

.Erasoa gertatu aurretik:

- Zure establezimenduan ageriko kartelak jartzea, eraso matxistarik onartuko ez den espazio librea dela adierazteko
- Indarkeria mota horren aurkako ekintzetan inplikatzeta eta hobeto aurre egin ahal izateko prestatzea
- Bakarrik edo koadrilan dauden gazteak/gizonak ohartaraztea, jokabide matxistekin zerbitzariak edo bezeroak erasotzen hasten direnean, eta portaera horiek moztea
- Tokira sartzeko eskubidea erreserbatzeko gaitasuna erabiltzea, eta erasotzailerik ez onartzea

.Gertatu bada:

- Beti entzun behar zaio lehenik erasotuari, zalantzan jarri gabe zer ari den kontatzen, balio-judizioak egiten edo berari egozten diotela errua (mozkortuta zegoelako, horrela jantzita zegoelako, jeloskor zegoelako...)
- Erasoa gertatzen den egoera bertan behera uztea, erasotzailea edo erasotzaileak bananduz, behar izanez gero lokalaren kanpoaldera eramanez eta erasoja jasan duena jendearen begiradetatik babestutako leku batean utziz, bere taldeko norbaitek lagunduta edo laguntza eskaini eta, behar izanez gero, lasaitzen saiatuz
- Inoiz ez egin gertatutakoari buruzko galdeketa
- Beti galdetu erasotuari zer egin nahi duen edo zer egin eta errespetatu nahi duena
- Beste pertsona edo zerbitzu batzuen berehalako esku-hartzearen beharra baloratzea, egoeraren arabera: osasun-arloko langileak, segurtasunekoak, laguntza emozionalekoak, lagunak, familiak (adingabeen kasuetan), etab.
- Laguntza profesionala eskatu, hala baloratzen bada - **Larrialdietarako telefonoak: 112, Udaltzaingoa 943176300**
- Erasotzaileari entzutea, gertatutakoari larritasuna kendu gabe
- Ahalik eta diskrezio handiena gorde gertatutakoari eta bereziki biktimaren nortasunari buruz
- Ez zabaldu, ez atera argazkirik, osasun-langileei edo segurtasun-langileei informazio zehatza emateko ez bada
- Erasotzaile/erasotzaileak atxikitzea, hala badagokio, zerbitzu profesionalak iritsi arte
- Profesionalei gertaerak argitzeko garrantzitsuak diren xehetasunen berri ematea, balorazio pertsonalik egin gabe
- Urruti eduki egoerarekin zerikusirik ez duten pertsonak
- Salaketa jartzen laguntzea, hala badagokio